

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako sindikatuek mahai negoziatzalea deitzeko eskatu diete Kristau- Eskola eta AICE-IZEA patronalei

**Greba amaierako akordioa eta EAEko Auzitegi Nagusiak eman berri duen epaia
betetzeko, soldatak eguneratzeko eta akordioa hitzarmenean txertatzeko galdegiten
diete behingoz**

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako sindikatuek LHKan idatzi bat aurkeztu dute. Bertan Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako patronal nagusiei, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei berehala mahai negoziatzalea deitzeko galdegin diete.

Ez dago inolako justifikaziorik greba amaierako akordioan jasotakoa bere osotasunean ez betetzeko, ez eta akordioan jasotako edukiak adostutako baldintzetan hitzarmen batean ez jasotzeko ere.

Greba amaierako akordioa orain dela 9 hilabete sinatu zen; langileek bete dute, akordioa sinatu eta hurrengo egunean bertan beraien lanpostura joan baitziren greba albo batera utziz. Patronalek ordea, akordioa betetzeko eta bere edukiak hitzarmen batean jasotzeko oztopoak jarri baino ez dute egin 9 hilabete hauetan.

Sindikatuek epaitegira jo behar izan dute. EAEko Auzitegi Nagusiak urriaren 30ean jakinarazi du bere ebazpena. Auzitegiak, otsailean sinatutako Greba Amaierako Akordioan adostutako soldatak ordaintzera kondenatu ditu patronalak. Epaiaik dio:

- Greba Amaierako Akordioa indarrean dagoela sinatu zen unetik bertatik, hau da 2024ko otsailaren 5etik;
- Patronalek akordioa betetzeko obligazioa dutela, eta finantzaketari baldintzatua ez dagoela bere betetzea;
- Patronalek, 2024ko soldatak martxoan ordaintzen hasteko betebeharra izan arren, ez dutela bete.

Hau horrela, sindikatuek patronalei eskatu diete mahai deitzeko, greba amaierako akordioa betetzeko, soldatak eguneratzeko eta ordaintzeko zein akordioaren edukiak adostutako baldintzetan hitzarmen batean jasotzeko behingoz.

Patronalek ez badute mahai deitzen hurrengo bi astetarako, sindikatuek beraiek deituko dute. Eta akordioa betearazteko beharrezko mobilizazio eta tresna guztiak aktibatzeko prest daudela adierazi dute.

2024Ko azaroaren 8an



Los sindicatos de los centros de educación de Iniciativa Social exigen a las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA que convoquen una mesa negociadora

Les instan a cumplir el acuerdo de fin de huelga y la reciente sentencia del TSJPV, a actualizar los salarios y a incorporar los contenidos del acuerdo al convenio

Los sindicatos de los centros de Iniciativa Social han presentado un escrito en el CRL. Han instado a las principales patronales de los centros de Iniciativa Social, Kristau Eskola y AICE-IZEA a convocar de inmediato una mesa negociadora.

No hay justificación alguna para no cumplir el acuerdo de fin de huelga, ni para que los contenidos contenidos en el acuerdo no se recojan en un convenio en los términos pactados.

El acuerdo de fin de huelga se firmó hace 9 meses; los y las trabajadoras lo han cumplido, ya que al día siguiente de la firma del acuerdo se trasladaron a su puesto de trabajo desconvocando la huelga. Las patronales, sin embargo, no han hecho más que poner trabas en estos 9 meses para cumplir el acuerdo y plasmar sus contenidos en un convenio.

Los sindicatos han tenido que acudir a los Tribunales. El TSJPV ha notificado su sentencia el 30 de octubre. El tribunal condena a las patronales a pagar los salarios pactados en el Acuerdo de Fin de Huelga firmado en febrero. La sentencia dice:

- Que el Acuerdo de fin de huelga está en vigor desde el momento en que se firmó, es decir, desde el 5 de febrero de 2024;
- Que las patronales tienen la obligación de cumplir el acuerdo y que su cumplimiento no está condicionado a la financiación;
- Que las patronales, a pesar de tener la obligación de empezar a pagar los salarios de 2024 en marzo, no lo han cumplido.

En este sentido, los sindicatos han pedido a las patronales que convoquen una mesa de negociación, que cumplan con el acuerdo de fin de huelga, que actualicen los salarios y que recojan sus contenidos en un convenio en los términos acordados.

Si las patronales no convocan la mesa para las dos próximas semanas, lo harán los propios sindicatos. Y aseguran que están dispuestos a activar todas las movilizaciones y herramientas necesarias para hacer cumplir el acuerdo.

8 de noviembre de 2024

